

Emakumeen oroimenaren ibilbidea


Biziaren, osasunaren eta emakumeen oroimenaren ibilbideak





“Emakumeen ekarpena ohoratzea justizia-egintza ez ezik, iraganari buruz dugun ulerkuntza kolektiboa aberasteko eta zuzentzeko modua ere bada”

Audre Lorde (1934, AEB)



Ongi etorri!



aktibatuz

Aktibatuz Farmamundi Euskadiren lidergopeko proiektua da, **Galdakaoko biztanleen lan bateratuari** esker sortu da eta osasunerako eskubidearen zein giza eskubideen defentsan ahaldunduta dagoen, konpromisoa daukan eta mobilizatuta dagoen herritartasun globala sustatzea dauka helburu.

Galdakaon, hain zuzen ere, prozesu komunitarioetan eman dugu laguntza, tokian tokiko aberastasunak indartzeko eta antzemateko asmoz, oso lagungarriak direlako ondo sentitzeko, geure gorputza zein burua zaintzeko eta erkidegoko bizimodua indartzeko orduan.

Aberastasun horiek osasun-aktiboak dira guretzat, eta, ibilbide labur honen bidez, eduki badaukaguna aitortu eta balioa eman nahi diogu, guztion artean zaintzeko eta egunez egun gozatzeko.

Zatoz eta ibilaldi hau bizi, hau da, osasuna eta ongizatea baina hausnarketa ere sustatzen dituen esperientzia. Partekatatu eta gehiago jakin gure webgunean, bertan geldialdi bakoitzari buruzko informazio osoa duzulako eskuragarri.

Osasun ibilbideak >



Galdakaoko emakumeen oroimenaren ibilbidea

Erabide Emakume Elkarteak Galdakaoko Emakumeen Oroimenaren Ibilbidea bultzatzen du, eta, oroimenaren bidez, osteratxo egitera gonbidatzen duen ibilbide laburra da. Emakumeek Galdakaoko garapenean, kulturean eta nortasunean izandako ekarpena gogorarazten duten eremuak goraiatzeko, agerian jartzea eta balioa ematea dauka helburu.

Aldi berean, bertako gunetako batzuek emakumeak sinbolo eta kontakizun ofizialetan agertzen ez direla nabarmentzen dutenez, desberdintasun horiek kolokan jartzeko eta erkidego osasuntsuagoaren lorpenean oroimen kolektibo bidezkoagoa irudikatzeko aukera ematen duten hausnarketa-guneak dira.



Eskaneatu kodea eta gozatu ibilbide birtual batez geltoki bakoitzaren informazioarekin!

Datu erabilgarriak

Iraupena: 2 ordu
Herritar guztientzat da irisgarria

Info gehiago: gune bakoitzean, QRa daraman monolitoa aurkituko duzu. Gehiago jakiteko, eskaneatu

Ibilbidea: ordena finkorik gabe. Geldialdi bakoitzak zenbakia dauka, zeure ibilbidea antolatu dezazun



Romualda zuloaga artetxeren horma-irudia

ZAPIA BURUAN ETA IBILI MUNDUAN



Kokapena: Tximelarre Bidea 29

Farmamundi Euskadik eta Erabide Emakume Elkarteak artibismoko ekintza hau bultzatzen dute Hibernando artista-taldearen laguntzaz.

Zatoz eta artelan honetaz gozatu! Koloreek, musikak, kulturak eta Romualdak gure ekintzen boterean sinetsarazten digute! Hitz egin eta auzokideei galdetu Romualdari buruz, jende askok ezagutzen zuen-eta! Horma-irudiaren argazkia igo eta #Aktibatuz etiketa jarri.



Bazenekien...

Bizkaiko Foru Aldundiak 2022an egindako azterlanaren arabera kaleen %4,6k baino ez daramatela emakume-izena?



2

Plazakoetxe

HISTORIAK EZ DU EMAKUMEEK GERRA ZIBILEAN BIZITAKOA AZALTZEN



Kokapena: Plazakoetxe Parkea

Zatoz eta hausnartu... Bakar-bakarrik, babesik gabe eta erre-presaliapean. 1936an, emakumeak gerrako armak izan ziren, gaur egun ere nazioarteko beste gatazka batzuetan gertatzen den bezala.



Bazenekien...

Nazio Batuen esanetan gatazka-guneetan neskek mutilek baino aukera gutxiago dutela hezkuntza eskuratzeko orduan?



3

Máximo moreno musika eskola

NON DAUDE EMAKUME MUSIKARIAK?



Kokapena: Urreta Kalea, 21, Tximelarre

Máximo Moreno Udal Musika Eskola talentuaren sorlekua da: gaur egun erreferenteak direnek hementxe ikasi zuten, eta etorkizuneko musikariek hementxe jaiotzen jarraitzen dute.

Gizonek beste emakumek musika ikasten duten arren, zergatik uste duzu emakumek agerpen gutxiago daukate-la eszenatokietan eta zuzendaritzako postuetan? Zatoz eta zeure hausnarketak partekatu gurekin Erkidegoaren Postontzian.



Bazenekien...

Euskadiko Orkestra Sinfonikoko (OSE) musikarien %34 baino ez direla emakumeak, Eusko Jaurlaritzak egin-dako "2022an emakumeek eta gizonek EAEko musikako sorkuntza-lan eta ekitaldietan dituzten agerpenari eta partaidetzari buruzko azterlanean" adierazitakoaren arabera?



4

Galdakaoko HHI

HEZKUNTZA, GIZARTEA ERALDATZEKO TRESNA



Kokapena: Urreta Kalea, 4-6 Trasera

Helduen Hezkuntza Zentroak jakintzari eta elkarbizitzari irekitzen dizkie ateak: alfabetizazioa eta gaztelaniako zein euskarako klaseak, besteak beste.

Zatoz, sartu eta bertan egiten diren ikastaro zein tailerren eskaintza ezagutu!



Bazenekien...

1993an, Galdakaoko HHIn Eskolako Graduatua lortu zuen emakume-talde batek Erabide Emakume Elkarte Kulturala eratu zuela, elkarguneak sortzeko eta udalerrian bertan emakumeentzako jarduera kulturalak egiteko?



5

Romualda Zuloaga Artetxe plaza

AITZINDARIA IZATEAREN ZAILTASUNAK



Kokapena: Romualda Zuloaga Artetxe plaza

Hiriguneari esanahi berria ematea eta Galdakaoko kale-izen-degian emakumeei agerikotasuna ematea egin gabeko zeregina zen. Beraz, Romualda Zuloaga Artetxe plaza, antzinako Herrilanen plaza, lehenengo urratsa izan da eraldaketarako prozesu horretan, emakumeek gure kale eta plazen izenetan duten agerpena berreskuratu eta balioa eman diolako.

Zatoz eta Emakumeen Etxea irudikatu hemen! Zer aurkitu nahi zenuke gune horretan? Biziz betetako leku seguru eta dibertsoa elkarrekin amesteko deia da. Zeure ilusioak eta ametsak partekatu Erkidegoaren Postontzian.



Bazenekien...

2024n Gontzal Carrascok idatzitako 'Romualda Zuloaga. Panderoaren bidaia hilezkorra' liburua (Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak) argitaratu zela?



6

Mendizalearen eskultura

KIROL MUNDUAN OZTOPOAK GAINDITU BEHARRA



Kokapena: Urreta Kalea 5

Mendizalearen eskultura ez da Galdakaon mendizaleak diren edo beste edozein kirol egiten duten guztien adierazgarri. Emakume kirolariei non egiten zaie omenaldia eremu publikoan? Berriro ere, emakumeak ikusezinak dira bertan.

Zatoz eta hausnartu... Maritxu Bilbao euskal mendizalearen eta eskaladako aitzindaria izan zen. Ganguren Mendi Taldearen sortzailekidea izan zen, baina eskultura hau ez da ez bere adierazgarri ez emakume mendizaleen adierazgarri. Emakumeak agerian jartzeko duzun proposamena azaldu Erkidegoaren Postontzian.



Bazenekien...

2022an EAEko kirol-ohitu-rei buruz egindako inkestaren arabera emakumeek (%58,1) gizonak (%71) baino kirol gutxiago egiten dutela? Horrez gain, kirola egiten duten 3 gizonetatik 2k atari zabalean egiten dute kirola, eta kopuru hori erdira iristen da ozta-ozta emakumeen kasuan.



7

Emakume dinamitarrien plaza

EMAKUMEAK AITORTZEKO IZENA JARRI BEHARRA



Kokapena: Emakume Dinamitarrien plaza

Plaza hau emakume dinamitariei eskainitako omenaldia da. Emakume ausart horiek industrian lan egin zuten, eta bidea urratu zuten gizonak nagusi ziren munduan.

Parkea, iturria eta oroitzapena! Atsedean hartzeko, jolasteko eta oroimenak metatzeko txokoa da. Zatoz eta eremu honetaz gozatu maite duzun norbaitekin, zeure familiako neska edo mutikoren batekin, esaterako.



Bazenekien...

2022ko ekainetik emakume dinamitarrien lanaren omeneko horma-irudia dagoela udalerriko Gaztain kaleko izkinan? Horrez gain, 2024an, Erabide Emakume Elkar-teak partaidetzazko prozesurako deia egin zuen, 'Emakume dinamitarrien' biografia Wikipedian sartzeko.





Esne-saltzailearen

**EMAKUME BASERRITARRAK:
LAN GOGOR BEZAIN AMAIEZINA**



Kokapena: Lehendakari Agirre plaza 6

Galdakaoko bihotzean, saltegiz, kulturaz eta paseariz inguratu-ta, esne-saltzailearen gure jatorria dakarkigu gogora. Baserritako emakumeek zaindu, landu, ekoitzi eta biziari eusten diotenez, indarra, lana eta gure lurraren zein historiaren bihotza dira.

Zatoz eta zeure jatorrira itzuli, zeure familia ekarri gogora... Zertan lan egiten zuten zure amak eta amonak? Zeure emakume arbasoen historia partekatu gurekin Erkidegoaren Postontzian.



Bazenekien...

2022an, Bizkaiko Aldundiak “Baserritarra eta harro” azterlana aurkeztu zuen, eta bertan jasotzen da 1.431 emakume baserritar daudela; Gehienek genero-desberdintasunak daudela azpimarratu zuten: emakumeen %83,6k gizonek baino etxeko eta familiako lan gehiago egiten dituzte, eta %51k-edo erresistentziei aurre egin behar diete erabakiak hartzeko orduan, eta ustiategiaren titulu gutxiago ere badauzkate, gainera.



Ardanza parkeko iturria

**ETXEKO LANAREN AITORTZA:
KONPONDU GABEKO ARAZOA**



Kokapena: Ardanza parkea

Iturri hau harrien eta ezkiaren artean dago, eta bizia zein ura darizkio... Beraz, egunez egun gure erkidegoari eusten dioten zainketa isil eta ikusezinak dakarzkigu gogora.

YouTube “El peso sobre mi” film laburra ikus daiteke; bertan bost lekukotasun agertzen dira, isolamendua, erantzukidetasun-falta eta norberaren zein besteen zaintzaren beharra aztertuz. Proiektua Farmamundi, Erabide Emakume Elkarte eta zuzendari Itxaso Díazen arteko lankidetzaz sortu zen.



Bazenekien...

Euskadin, Eustaten arabera, ordaindu gabeko etxeko lana BPGd-ren %27,7koa zela 2018an, hau da, 21.000 milioi eurotik gorakoa, eta, horren ondorioz, zainketen garrantzi ikusezina-
ren erakusgarri dela?





Dantzariaren estatua

EMAKUMEEN IKUSEZINTASUNA SINBOLOETAN



Kokapena: Jasokundeko Andra Mariaren elizaren aurrean

Dantzak herri guztietan dauka agerpena, eta, giza premia ez ezik, adierazpide unibertsala ere bada. Euskadi *“Pirinioetako oinaldean abestu eta dantzatzen duen herria”* omen da Europan.

Euren dantzen eta musikaren bidez, euskal emakumeek gure kultura sustatu eta aberastu duten arren, dantzari ei egindako omenaldi honetan ez dira inon ageri. Noiz aitortu eta kontuan hartuko ote dituzte sinboloetan?



Bazenekien...

2019an ikerlan batean jakitera eman zela XVI. mendetik Bizkaian emakumeak izan direla aureskua koreografiatu eta zuzendu dutenak? Beran, esaterako, 2014an, neskek lehen aldiz dantzatu zuten Bordondantza. Bestetik, 2022an, Ane Maruri izan zen mendeetan eta mendeetan Lekeition Kaxarranka tradizionala dantzatu zuen lehenengo emakumea. 2024an, María Balluerka izan zen 500 urtean Ordiziako Santeroan dantzaldi tradizionalan aureskua dantzatu zuen lehenengo emakumea.



Monika Lekumberri parkea

EMAKUMEAK ETA EUSKARAREN TRANSMISIOA KLANDESTINITATEAN



Kokapena: Parque Monika Lekumberri

Garai latzetan euskara irakasten garatutako lan isil bezain ausarta inspirazio-iturria da guretzat, geure hizkuntza eta nortasun euskalduna zaintzen jarraitzeko orduan.

Zatoz eta gutuna idatzi zeure ama hizkuntzari, euskarari, alegia. Azaldu iezazizu nola iritsi zen zure bizitzara, nola sentitzen zaren hitz egiten duzunean eta zein diren altxorra balira bezala gordetzen dituzun hitz horiek.



Bazenekien...

2015ean Galdakaoko Udalak Gregorio Arrienek Monikaren bizitzari buruz idatzitako liburu hau argitaratu zuela: *“Monika Lekumberri Uriona: Leizaolatar Karmel Euzko Ikastola”*?





Osteratxo horrek zugar piztu duena edozer dela ere, zeure iruzkinak, iritziak, hausnarketak edo iradokizunak Erkidegoaren Postontzian gurekin partekatu besterik ez duzu.

Eskerrik asko



Proiektua



Finantzaketa



LAN KIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD